

## **Euskararen errelatoak hizpide gaur eta Telp tailerra 25 eta 26an Usurbilen**

Nafartarrak elkarteak antolatuta ekimen desberdinak aurrera eramango dira datozen egunetan. Bihar arratsaldeko 19:00etan hasita Joxe Manuel Odriozolarekin hitzaldi-solasaldia izango da Potxoenean.

Joxe Manuel Odriozola (Altzo, 1948), Pasaiaiko Udal Euskaltegian euskara irakasle izan da 28 urtez. Soziolinguistikarekin lotutako hainbat saiakera eta iritzi artikulua ere argitaratu ditu. Potxoeneako hitzaldi-solasaldi honetan, euskararen errelatoaz ariko da. «Nazio-minorizazioak hizkuntza minorizazioa dakar, eta mendekotasun horren ondorioz, hizkuntza galdu egiten da gehienek ikasten ez dutelako eta dakitenek erabili ezin dutelako». Hurrengo egunetan, urriaren 25ean eta 26an, Telp Tailerra jarriko da martxan. Urriaren 25ean arratsaldeko 19:00etan tailerraren sarrerahitzaldia aurkeztuko da Sutegin. Sarrerako hitzaldi hau doakoa eta irekia da, ez da zertan ikastaro osoa egin beharrik sarrerako hitzaldira joateko. «Euskaraz bizi nahi dut.baina ez dut lortzen. Zergatik?» Hizkuntza portaera ulertzeko oinarri psikologikoak azalduko ditu Gemma Sanguinesek Urriak 26an goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00era eta arratsaldez 15:00etatik 19:00etara, Telp tailerra aurrera eramango da Potxoenean. Tailer hau Valentzian sortu zuten Ferran Suay eta Gemma Sanguines Psikologia Unibertsitateko irakasleek. Katalunyan erabiltzen den teknika linguistikoa bat da. «Euskaraz bizi nahi dut... baina ez dut lortzen!!! Zergatik?». Kezka horri erantzuteko, euskaldunok geure eguneroko bizitzan gaztelaniara aldatu gabe, eta horregatik gaizki sentitu gabe, euskarari eusteko tresnak eskainiko dituen ikastaroa. Horretarako, oso baliagarriak izango dira maila kognitiboan, emozionalean eta fisiologikoan eskainiko diren baliabideak. Teknika honek hizkuntz portaera ulertzeko oinarri psikologikoak eskeintzen ditu.

Sutegi udal liburutegia euskarazko beste irakurketa-topaketa bat prestatzen ari da. Pako Aristi izan zen lehenengo literatur topaketan Arantxa Urretabizkaiaren 3 Mariak liburua komentatu zuten. Orduan 16 pertsona izan ziren horretara animatu zirenak eta datorren azaroaren 25erako beste irakurketa topaketa antolatu du liburutegiak.

Gidaria, oraingo honetan ere, Pako Aristi izango da, eta komentatuko duten liburua, Jon Arretxeren 19 kamera. Liburuaren ale ezberdinak Liburutegiak eskuratuko ditu interesa duenarentzako; izan ere, liburua alde aurretik irakurriz gero, etekin handiagoa ateratzen baitzaio topaketari. Hau, 16 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta azaroaren 25ean, astelehenean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera izango da. Parte hartzera animatzen direnek liburutegiko